


# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 11a / 619. zenbakia



## SAHARAN KORRIKAN

Esteban Lazkano eta  
Imanol Pildain  
hango maratoian izan dira

**KILOMETROAK: 2007KO EKITALDIA, BERGARARA/5 • KULTURA: ANTZERKIA ZAPATUAN NOVEDADESEN/11**

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ESTEBAN LAZKANO



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 11**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 12**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- DOMEKA, 13**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 14**  
MOZOS, Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 15**  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 16**  
ZABALA, Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- EGUENA, 17**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kiroldegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egotza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuena etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuena elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Äkulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak: 09:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak: 19:00.<br>Domekak: 13:00.            | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.               |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30                                    | <b>Antzuola</b><br>Domekak: 10:00, 11:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.  |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.                                     | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.                                       | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.                                       | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.                                    | <b>Elgeta</b><br>Domekak: 12:00.   |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.                                    |  |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

**OHARRAK**

**1979AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 19AN**  
1979an jaiotako bazkaria hurrengo zapatuan, martxoaren 19an, Txarrantxa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

**SAGARPE ELKARTEKO BATZARRA**  
Sagarpe elkarteko bazkideek urteko batzarra egingo dute gaur, egubakoitza; lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena, 19:30ean.

**ODOL ATERATZEAK HILAREN 16AN ETA 30EAN**  
Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, martxoan bi odol ateratze egingo dituzte, hilaren 16an eta 30ean, hain zuzen. Ohikoa den modutan, Seminarioko lokalean egingo dituzte odol ateratzeak, 18:30ean hasita.

**JARDUNEN AGENDA**

**TXAPLIGU TALDEA**  
Bihar, zapatua, Korrika Festa egingo dute Txapligu taldekoek, San Martin plazan. Domekan, berriz, bideo emanaldia izango dute Arrizuriagan, 16:00etan.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Ohikoa den moduan, 12-14 urte bitartekoak arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira, bihar, zapatua, Udal Euskaltegian. 14-16 urte bitartekoak, 18:00etatik 20:00etara. Eztabaidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak... eta abar izango dituzte Txorimalo taldekoek.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarretik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


**ORAINDELA 10URTE BERGARAN**

**Eguzki Lore etxea botatzeko hitzarmena**

Pedro Gartzandia eta Begoña Muxika Eguzki Lore txaletaren eta inguruko lursailaren (1.600 m2 inguru) jabeek eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak hitzarmena sinatu zuten 1995eko martxoan; akordioaren arabera txaleta bota eta haren tokian etxebizitzak egitea zen asmoa.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**



Lirain bihurtu. — Len potolua zan baiña ziero lirainduduta dago.

JON IRAEGI San Juan auzoan jasotako datuak

**HAUGIROA!**

**MINIMOIA**  
Eguaztena, 2 **-6 °C**

**MAXIMOIA**  
Eguaztena, 2 **11 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **97,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	11 °C	-6 °C	3,4 l/m²
Eguena, 3	4 °C	-1 °C	26,9 l/m²
Egubakoitza, 4	4 °C	0 °C	20,4 l/m²
Zapatua, 5	6 °C	0 °C	36,3 l/m²
Domeka, 6	7 °C	3 °C	10,3 l/m²
Astelehena, 7	5 °C	0 °C	0,6 l/m²
Martitzena, 8	9 °C	0 °C	- l/m²

**ASTEKOPELIKULAK**

**'CONVERSACIONES CON MAMA'**

ZUZENDARIA: SANTIAGO CARLOS OVES.  
AKTOREAK: CHINA ZORRILLA, EDUARDO BLANCO, ULISES DUMONT, SILVINA BOSCO.

**HARIA.** Jaime (Eduardo Blanco) eta bere ama oso modu ezberdinean bizi dira. Lanetik botatzen dutenean, Jaimek ezin izango du bere bizitza erritmoari eutsi eta amarengana joko du... Kritika onak jaso ditu filmak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Gaur, egubakoitza, 22:30ean. 95 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**'CLOSER'**

ZUZENDARIA: MIKE NICHOLS. AKTOREAK: JULIA ROBERTS, JUDE LAW.

**HARIA.** Bi bikoteren istorioa kontatzen dute drama honetan. Bikoteetako bateko gizonak besteko emakumea ezagutzean gauzak nahastu egingo dira erabat. Oscarretarako hainbat izendapen jaso zituen filmak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean. Astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna). 98 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**'2046'**

ZUZENDARIA: WONG KAR-WAI. AKTOREAK: TONY LEUNG, CHIU WAI, GONG LI.

**HARIA.** Chow Mo Wan idazlea da. Bere eleberrri batean tren batek 2046. urtera bidaiatzen du, oroitzen berreskuratu nahi dituzten bidaiariz beteta. Bestetik, hainbat emakumerekin harremanak izango ditu Mo Wanek.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, martxoaren 17an, 20:00etan. Zineklubeko emanaldia. 123 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**BERGARA Margoak**

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



## ATREBENTZIAEZPADA/ Emakumea izateagatik diskriminatua sentitu zara inoiz?



ENCAR MAGDALENO

Ez, sekula ere ez. Hala ere, diskriminazioa dagoela gauza nabarmena da. Horren adierazle dira besteak beste tratu txarrak; eta oraindik emakumeok asko dugu egiteko eta gure arloan lortzeko.



MARIA LUISA CASADO

Ez. Lan egin dudan tokietan ez naute diskriminatu, eta beste alor batzuetan ere ezberdintasun txikiak bakarrik ikusi ditut. Baina badakit hainbat enpresatan emakume izateagatik gutxiesten dutela jendea.



IXIAR URBIETA

Ez, diskriminatua ez. Izan ere, jarrera matxisten aurrean gizonetzkoen aurre egiten saiatu izan naiz beti, bestela emakumeok zapalduta geundeke beti. Lehen orain baino nabarmenagoa zen jarrera hori.



AITZIBER AXPE

Ez, ni ez naute inoiz diskriminatu. Baina lan arloan gertatzen dira gutxiesten handienak. Hainbat lantegitan emakumeek gutxiago kobratzen dute eta etxeko lanetan ere ez dago berdintasunik.



DELIA GONZALEZ

Diskriminatuta ez nuke esango, baina gizonetzkoen maila berean ere ez gaude. Batik bat lan arloan eta zer esanik ez etxeko lanetan. Ni gusturago bizi izango nintzateke etxeko lan guztiak egin behar ez banitu.



MIREIA ODRIOZOLA

Oraingoz ez. Lan egin dudan lekuetan ez dut horrelako arazorik izan. Baina enpresa batzuetan kontratu finkoa egiteko orduan gizonetzkoak hartzea nahiago izaten dute, nahiz eta lan berbera egin.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK EMAKUMEAREN ASTEA** Asteon izan da Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Horren aitzakian hainbat ekintza antolatu dira. Bergarako Emakume Kultur Elkarteak eta Go-Jam aretoak Udalaren eta Emakunderen laguntzaz jardun dute lanean. Irakurle batek zera esan digu: "Horrelako ekintzak antolatzea txalogarria da". Hala ere, bere ustez, "urte guztian egin beharko lirateke". /I.A.

## ETABARRUAN...

ASTEKOAK /5

### Kilometroak, Bergarara

Bergarako Aranzadi Ikastola izendatu dute 2007. urteko Kilometroak jaia antolatzeko.

KIROLAK /8

### Pilota jaialdia domekan

Udalak eta Aspek hitzarmena sinatu ondoren, profesional mailako jaialdia izango da Udal Pilotalekuan.

KULTURA /11

### Ogi mamiak domekan

Arrasateko Corazon de Encina taldearen eskutik, ogi mamiak domeka eguerdian plazan.

## ASTEKODATUA

# 11

### PARTIDU JAITSIERA SAIHESTEKO

Bergara KEko preferente mailako taldeari 11 partidu geratzen zaizkio liga amaitzeko. Bihar, zapatua, sailkapenean bigarren postuan dagoen EHU taldea izango dute bisitari Agorrosinen.

## BESTEKEKESANA

**Eibarko Astelena pilotalekuarekin genuen hitzarmena bertan behera geratu ostean, Bergarako pilotalekua zen aukeratariko bat. Egon, bazeuden pilotaleku gehiago, baina Bergarakoa zen lehenengo aukera. Frontoi oso ona da; beste leku batzuetan beste kirol batzuetarako erabiltzen dira pilotalekuak, baina Bergarakoa oso ondo zainduta dago; kantxa eta frontisa egoera oso onean daude. Bergarako Udal pilotalekua da; ez da pilotaleku pribatua Bilbokoa, Hernanikoa eta Eibarkoa legez. Eibarko pilotalekuarekin geneukan akordioan jokatuako partidu kopuruaren araberrako ordainketa egiten genuen. Bergaran kopuru finko bat ordaintzea adostu dugu"** PATXI MUTILOA / **Aspe pilota enpresaren kudeatzailea 'Asteleheneko Goienkaria' /05-03-07**

## BERAIEKDIÑO/ Unai Lopez



# M-11

Martxoaren 11, osteguna, goizeko zazpi t'erdia; beste egun batez Madril martxan jartzen da, ohikotasun arrunta. Beste egun batez gizonetzko langile bat bere lantokira eramango duen ohiko trenaren zain dago. Besté egun batez emakume bat liburuak bizkarrean harturik trenez doa garaiz bere unibertsitateko eserlekua betetzera. Gaurkoan ere etorkizun oparoago baten nahian bere lurraldetik Madrilera etorritako gizakume bat hor doa itxaropentsu lan bila zerbitzu publiko erabiliz. Atzo bezala gaurkoan ere mutil koxkor bat... eta horrela bakarkako 192 istorio; lotutako 192 istorio. Urte bete luzea igaro da goiz hartako logaleak amen batean uxatu zizkigun gertakari ahaztezin bezain goibel hura jazo zenetik, urte bete jada. Ordutik hamaika komunikabidetan entzundakoa izan da zorigaiztoko data hau, ahoa bete hitz 'ezkerrek' ezkerre-

rantz eta 'eskuinak' eskuine-rantz tiraka, ohiko tankeran, bakarkako interes eta behar-ak asetzeko tresna sarkor bihurtuz.

Bitartean hainbat familieren atsekabe, sufrimendu eta nahigabeak ez batean eta ez bestean?

**"Bitartean familien atsekabe, sufrimendu eta nahigabeak ez batean eta ez bestean?"**

Suposatzea da gai hau askorentzat gogaikarri bihurtuko zela denboraren poderioz, onartzea da hedabideek ez dutela lan makala egin zentzu honetan.

Neronek ere, aukeratzekotan, kontu zirrargarriagoren bat hautatuko

nuke une honetarako; mundu honen zentzugabekeria hau ahazten lagunduko zidan kontu leunago bat. Gizalegez ezin bestelako ekarpenik egin: Gupidarik gabe etendako 192 istorio horiei nire omenalditxo xume hau, baita aderez bizitzan aurrera jarraitzen duten beraien sendiei eta orduan zauritutakoei. Ezker-eskuine-koei berriz... gizatasun eta duintasun apur bat, martxoaren 11n bakarrik bada ere.

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERRIGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Irati Agirreazaldegi  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala





Ibargarain eta Bideberrin asfaltatze lanetan ibili dira astean zehar.

## Aste Santurako bukatu nahi dituzte herri barruko lanak

EDU MENDIBIL

Construcciones Sobrino enpresako iturriek BERRIGARARI adierazitakoaren arabera, martxoaren 23rako bukatuta izango dira herri barruan ur-kolektoreko lanak: "Aste Santua baino lehen amaitu nahi ditugu lanak Masterrekan eta Ibargarain. Zurraderon lan batzuk egitea eta beselako erremate lanak faltako dira gero. Baina martxoaren

23rako zirkulazioa normalizatuta eta trabarik ez egotea da gure asmoa", esan digu Pedro Uriartek.

Astean zehar asfaltatze lanak egin dituzte Ibargarain eta Bideberrin. Bi noranazkoetan ibil daiteke dagoeneko Ibargarain; hala ere, saihasbide aldetik datozenek oraindik ezin dute aurrera egin Miguel Altuna ikastetxearen parean, eta Irala kalera edo Zurradero zubi aldera egin beharko dute.

ZUBIETA-KRUZ GALLASTEGI ITXITA

Bestalde, Udaltzaingoak aditzera eman duenez, datozen egunotarako ez dago inolako aldaketarik aurreikusita. Kruz Gallastegi eta Zubietaren arteko pasoak, Infernokua tabernaren parean, itxita jarraitzen du, Masterrekan egiten diharduten lanengatik. Uste baino gehiago luzatu dira lanok. Sortutako eragozpenak direla eta, lanon arduradunek barkamena eskatu nahi die herritarrei.

## Korrika iritsiko da eguazten arratsaldean Bergarara

E.M.

Eguaztenean, martxoaren 16an, Korrikaren 14. ekitaldia iritsiko da Bergarara. Antolatzaileen arabera, 17:20an helduko da Elorregira eta 17:55ean San Martin plazan izango dira.

EKITALDIAK PLAZAN

Korrikari ongietorria egiteko hainbat ekitaldi izango dira San Martin Plazan, 16:30etik aurrera. Herritarrak ekitaldiotan parte hartzera eta korrika egitera gonbidatu dituzte antolatzaileek. Ber-

garatik Elgetarako bidea hartuko du Korrikak.

KILOMETROAK SALGAI

AEK-k aditzera eman duenez, kilometroak erosteko aukera dago oraindik. Interesatuak Antolatzaileko AEKra, 943 77 03 69 telefono zenbakira jo dezakete. Kilometro bakoitza 320 eurotan jarri dute salgai. Era berean, Korrika Laguntzaile txartelak 12 euroren truke eskura daitezke Pol-Polen edo Jardunen, Errotalden. Hainbat komertzioetarako deskontuak eskaintzen ditu txartelak.



Korrikari ongietorria egiteko ekitaldiak izango dira eguazten arratsaldean.



### Autobus geltokia abian jarri dute Torrekuan

Aste honetan jarri dute abian autobus geltoki berria Torrekuan. Beraz, Pesa autobus konpainiako erabiltzaileek hara joan beharko dute aurrerantzean autobusa hartzera. Oraingoz markesinak jarri dituzte geltokian. Eta komunak jartzeko aurrekontua onartua dauka Udalak. Ertzaintzaren atzeko pasealekutik zein Torrekuako etxeen paretik joan ahal izango dira bidaiariak geltokira.

## LABUR

### Pazkoetako Bideberriko kontzertuak antolatzeko bilera irekia martitzenean

Mendekoste jaietan Bideberrin izaten diren kontzertuak antolatzeko bilera izango da martitzenean, martxoaren 15ean, kultur etxean, 18:30ean. Gaiarekin interesatutako guztiei bileran parte hartzeko deia egiten zaie.

### Turismo Bulegoa zabalduko dute martxoaren 17tik apirilaren 17ra bitartean

Begarako Turismo Bulegoa zabalduko dute hurrengo egunean, martxoaren 17an. Apirilaren 17ra bitartean egongo da zabalik, ondoko ordutegiarekin: asteleheneetik zapatara 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Domeka eta jaiegunetan, berriz, 11:30etik 14:30era. Bulegoa zabalik dagoen bitartean doaneko bisita gidatuak antolatuko dituzte. Argibideak 943 77 91 28 zenbakian.

### Langabeei zuzendutako makina-erreminta eta industri elektrikari ikastaroak

Udaleko Enplegu Zerbitzuak langabeei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu: makina-erreminta operadore ikastaroa (309 ordu) eta industri elektrikari ikastaroa (340 ordu). Ikastarook Miguel Altuna ikastetxean izango dira, apirilaren 4tik uztailaren 12ra bitartean. Lanpostu bat lortzen laguntzeko prestakuntza ematea da helburua. Izena emateko epea martxoaren 18ra arte zabalik dago Udaleko Enplegu Zerbitzuan, 943 77 91 24 telefonoan.



**EUSKARA/** Aparteko arazorik ez badago, hurrengo urtean jaiaren antolaketa esleituko diote Aranzadiri

# Bergarako Aranzadi Ikastola izendatu dute 2007. urtean Kilometroak jaia antolatzeko

E.M.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Aranzadi Ikastola izendatu du 2007. urteko Kilometroak antolatzeko. Beste bost herrik egin zuten bi urte barru Kilometroak antolatzeko eskaera. Astelehenean bertan Bergara izendatzea erabaki zuten Ikastolen Elkarteak.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak astelehenean erabaki zenez, 2006ko Kilometroetako jaia Oiartzungo Hautzaro Ikastolak antolatuko du. Era berean, 2007. urtekorako Aranzadi Ikastola izendatu zuten. Tarte horretan beste ikastolaren bat kinka larrian ez badago, Aranzadi antolatuko du ikastolen jaia, 2007ko urrian.

**HAMASEI URTE BERANDUAGO, BERRIZ** Beraz, hamasei urte beranduago Kilometroak jaia izango du berriz Bergaran. 1991ko urriaren 6an

ospatu zen lehenbiziko aldiz eta milaka lagun hurbildu ziren egun hartan Bergarara. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, Bergarara etorri zirenek ibilbidearekin eta herrian sortutako giroarekin gozatu zuten.

## IBILBIDE LAUA

Patricia Urrutia Aranzadiko zuzendariak esandakoaren arabera, ibilbide laua prestatu nahi dute 2007an: "Antolaketa lanak egiteko batzorde bat osatuko dugu, baina aurkeztu beharreko dokumentazioan ibilbide laua egiteko ideia azaldu genuen. Baliteke lehengo trenbide zaharretik egitea ibilbidea, Labegaraietatik hasi eta Osintxuraino. Dena den, gauza horiek poliki-poliki zehazten joango gara. Albiste pozgarria izan da jaia antolatzeko gu izendatzea".

Bestalde, aurtengo Kilometroak Aretxabaletan eta Eskoriatzan ospatuko dira, urriaren 2an.



Bergaran, 1991ko Kilometroen inguruan antolatutako ekitaldietako bat, Marino Lejarreta eta Sabino Padillarekin, besteak beste.



## Miguel Altunako zozketako irabazlea

Miguel Altuna ikastetxeak antolatuko zozketan, Carlos Gutierrez ikasle ohiak ordenagailu bat irabazi du. Elementaleko 75. urteurreneko liburua jaso zuten artean egin zuten zozketa. Argazkian Ina Larrañaga Miguel Altuna zuzendaria, Carlos Gutierrez eta Gamak etxeko Kepa Egaña.

## Mikel Zubimendiri ongietorria egin zioten astelehenean 200 bat lagunek

ERREDAKZIOA

Sei urtez kartzelan egon ondoren, Frantziako Poliziak aske utzi zuen Mikel Zubimendi bergararra astelehenean, Port Boun, Frantzia eta Katalunia arteko mugan.

Astelehenean bertan bete zuen Zubimendik Frantzian ezarri zioten zigorra. Estatu espainiarrera estraditatu izateko beldurrez, otsailaren 16an gose greban eta joan den egunetik egarri greban izan da Zubimendi. Ondorioz, ahulduta baina animuz iritsi zen bere jaioterrira astelehen gauean.

Arrano tabernaren parean egin zioten ongietorrian 200 bat lagun elkartu ziren, familiakoak eta lagunak tartean. Aurrerakua dantzatu zioten eta hainbat



Mikel Zubimendi amaren ondoan lore sorta jasotzen, asteleheneko ongietorrian.

opari jaso zituen Migelonek. Arnaldo Otegi, Xabier Zubizarreta edota Jose Luis Elkorok ere ziren Eusko Legebiltzarkide

izandakoarekin. Domekan, martxoaren 12an, omenaldia egingo diote San Martin plazan, 19:00etan.



**POL-POL**  
**Taberna**

943 76 07 78. Bergara

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68





**KULTURA/** Abdon Juaristiren margo erakusketa batekin irekiko dute Aroztegiko erakusketa areto berria

# Aroztegiko aretoa Pazkoetan, maiatzaren 12an zabalduko dute

E.M.

Aroztegiko erakusketa aretoa maiatzaren 12an zabalduko dute, Pazkoetako egitarauaren barruan. Bergarako jaiak maiatzaren 13an hasiko dira, eta bezperan irekiko dute areto berria.

Hasiera baten Aroztegiko aretoa joan den irailean zabaltzekoa zen. Mainer Osa Kultur teknikariak zera adierazi digu: "lanak uste baino gehiago luzatu dira eta data esanguratsu bat bilatze aldera, azkenean Pazkoetan zabaltzea erabaki dugu. Erakusketak, hitzaldiak eta formatu txikiko kontzertuak egiteko erabiliko da aretoa".

Areto berria inauguratzeko, Abdon Juaristi margolariaren (1948-1997) erakusketa jarriko dute ikusgai maiatzaren 12tik aurrera. Juaristik marrazki eta pintura ikasketak egin zituen Simon Arrieta eta Moises Eguerenekin. Zalantzarik gabe, Ber-

garak eman duen pintore onenetakoa da eta sari ugari jaso zituen han eta hemen. Bere bizitzako azken urteetan, Osakan (Japonia), Avilan eta Segovian saritu zuten.

## AROZTEGIKO ATEA, ARETO BARRUAN

Berriro ez hondatzeko, Aroztegiko atea (XV. mendekoa) areto barruan izango da ikusgai. Zortzi hilabetez zaharberritzen izan zuten Donostian, eta joan den abenduaren 14an ekarri zuten handik. Albayalde enpresak egin ditu atearen berritze lanak, 28.700 euro inguruko aurrekontuarekin. Areto berriaren sarreran ate berria jarri dute.

*Aroztegiko atea, XVI. mendekoa, areto barruan izango da ikusgai aurrerantzean*



Aroztegiko sarreran ate berria jarri dute.



## Helduen Eskolakoek sagardotegira irteera egin zuten, Astigarragara

Bergarako Helduen Eskolako ikasle eta irakasleak Petrítegi sagardotegian izan ziren joan den otsailaren 24an. Autobusean 66 lagun joan ziren Astigarragara afaltzera. Sagardotegiko ohiko menua dastatu ahal izan zuten, eta, esan digutenez, aurtengo sagardo uzta primerakoa izan da. Kupeletik kupelera ondo baino hobeto moldatu ziren. Txooooootx!!!

## LABUR

### Eusko Alkartasuna posta bidezko botoak tramitatzen hasi da, apirilaren 17ari begira

Bergarako Eusko Alkartasunak aditzera eman duenez, posta bidezko botoak tramitatzen hasi dira, apirilaren 17ko hauteskundeetara begira. Aste barruan 11:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era izango da zabalik Alkartetxean. Argibideak Eusko Alkartasunaren egoitzan, 943 76 26 81 telefono zenbakian

### Kantu afaria hurrengo egubakoitzean Artatse elkartean, Jardunen eskutik

Jardun elkarteak antolatuta, hurrengo egubakoitzean, martxoaren 18an, kantu afaria izango da Artatse elkartean, 21:00etan. Kantu-liburuxkak banatuko dituzte afaria girotzeko eta soinu joleak eta trikitilariak ere egongo dira. Afarirako txartelak Kortazar tabernan eta Jardun elkartean eskura daitezke. Izena emateko epea martitzenara arte, martxoaren 15era arte zabalik.

### Erramu Zapatuan, hilaren 19an, bertso jaialdia izango da Udal Pilotalekuan

Hurrengo zapatuan, martxoaren 19an, Erramu Zapatuko ekitaldien barruan, bertso jaialdia izango da Udal Pilotalekuan, 22:15ean hasita. Angel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Amets Arzaillus, Sustrai Colina, Joxe Agirre eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsoetan. Gai-jartzailea, berriz, Jon Zaldúa izango dira. Sarrerak sei eurotan salgai jarriko dituzte frontoian, egunean bertan.

# ZUHAIZTI

## taberna

**Eguneko menuak!**

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

**Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.**

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22



MINGAINARITIRAKA



## Mari Fe Ventades

ECUADOR BIDAIAK

**Bilbotarra da Mari Fe, baina, urte mordoa darama Bergaran bizi izaten. Ecuador Bidaietan lanean dihardu hamasei bat urte; lehen Arruriaga kalean, eta orain, Ibargarain. Otsailean zabaldu zuten Ibargaraiiko egoitza berria.**

**Azkenaldian eguzki bila etorriko zaizue jendea, ezta?**  
Bada, bai, baina, elurretara joateko bidaien bila ere jende asko etorri zaigu.

**Ze eratako bidaiak daude boladan? Ze toki?**  
Denetarikoa; umeak dituzten asko, adibidez, Kanariar irletara joaten dira. Gainerakoan, Praga, Egipto eta Benidorm ere boladan daude.

**Egin duzun azkeneko bidaia?**  
Udako oporretan Ibizan egon ginen.

**Egingo zenukeen bidaia bat?**  
Indiara gustura joango nintzateke.

**Aukeran, hegazkina, tren, itsasontzia, autobusa edo autoa?**  
Hegazkina, azkarrena eta segurua da-eta.

**Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?**  
Jendearekin egotea, bidaien gaineko aholkuak ematea eta bidaiak antolatzen laguntzea.

**Eta gutxien?**  
Barruko lana; paper eta administrazio kontuetan lan egitea.

**Liburu bat?**  
*La ciudad de la alegría*, Dominique Lapierrere.

**Film bat?**  
Ezingo nizuke bat bakarrik esan, asko gustatzen zaizkit.

**Musika talde bat?**  
U2.

**Abuztuan Donostian emango duten kontzertura joango zara?**  
Ez; gainera, ez dut sarrerarik erosi eta dagoeneko agortuta daudela entzun dut.

**Urtaro bat?**  
Udaberria; eguna luzeagoa da, paisaia berdea...

**Asteburu baterako plan ideala?**  
Senarrarekin bainu-etxe batera joatea.

**Lagun on bati zer eskatzen zaizu?**  
Errespetua.

**Bukatzeko, amets bat?**  
Bakea lortzea mundu osoan.

AINZANE IRIZAR

## NIREBIDAIAHURA/Glorya Pera

VENEZUELA / 2004ko abuztuan

**I**nes nire lagunarekin joan nintzen Venezuelara iazko udan. 23 egun egin genituen Venezuelan. Aldez aurretik ezer antolatu gabe joan ginen. Caracaserira iritsi eta hango hotel baten pasatu genuen lehendabiziko gaua. Caracas hiri arriskutsua zela entzunda genuen, eta egia esan, ez zigun inpresio onik egin, nahiz eta gau bat besterik ez genuen pasatu hantxe.

Hurrengo egunean mendealdeko kostaldera abiatu ginen, Chichirivichera, hain justu; Benidorm estiloko hiria da. Ez da bate-re hiri polita, baina, inguru guztia parke naturala da eta *cayo* edo irlatxo mordoa dago; inguruak zoragarriak dira. Txalupa batzuk daude *cayo*etara joateko. Gu haie-tako batzutan egon ginen, Cayo Sombreron, esaterako. Hainbat kobazulo ere bisitatu genituen *cayo*etan.



zetik Ciudad Bolivarrera joan ginen, eta handik, sei lagunendako abioneta baten, Canaimara. Zoragarria da Canaima parke naturala. Hango mendiak lauak dira, altuak eta lauak, eta tepui deitzen diete. Denetik ikusi genuen Canaiman: laku bateko hondartzan egon ginen, ur-jauziak ikusten, txalupetan ibili ginen...

Canaiman dago Angel izeneko ur-jauzi ospetsua. Ederra da, baina, hura baino politagoak ere badaude, Sapo izenekoak, esaterako. Bi gau pasatu genituen Canaiman, eta zoragarria izan zen oihanean lo egitea. Azkeneko bost egunak Santa Fe herrixkan pasatu genituen, ekialdeko kostaldean. Maitemindu egin ginen herrixka horrekin; arrantzaleen herri txiki bat da.

Urakan baten bisita ere izan genuen; azkeneko eguna zen eta bazkari on bat egitea pentsatu genuen. Bazkaltzen geundela haitze gogorra eta zaparradak hasi zituen; ez ginen gehiegi beldurtu, ez ginelako oso kontziente zer gertatzen ari zen. Alboko herri baten kalte handiak eragin zituen urakanak. Bidaia ederra egin genuen, eta oso gomendagarria, benetan.

AINZANE IRIZAR

*“Santa Fe  
arrantzaleen  
herrixkarekin  
maiteminduta  
geratu ginen”*

*“Azkeneko egunean  
hurakan baten bisita  
izan genuen; alboko  
herrian kalte handiak  
eragin zituen”*

Chichirivichetik Puerto Ordaz hirira joan ginen; 14 ordu egin genituen, autobusez. Bidaia gogorra izan zen, benetan. Guk autobus onenetako baten egin genuen bidaia, baina, ikustekoa ziren hango autobusak: kanpotik leihoak eta denak margotzen zituzten, musika oso ozen jartzen zuten...

Puerto Ordaz hiri oso handia da, eta horrelako gehienak bezala, nahiko arriskutsua da. Gure helburua, baina, Canaima oihana iristea zen. Puerto Orda-



Angel ur-jauzia Canaiman.

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidrieren margolanak
- ▶ imitazioak

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA-HERNANI  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777

**FISIOTERAPIA  
KONTSULTA BERRIA**

**Irene Unzueta**

Ordua hartzeko:  
San Martin Osasundegia  
Ramon M<sup>a</sup> Lili 2.

**943 76 59 39**



PILOTA

# Aspek antolatutako jaialdia izango da domeka arratsaldean Udal Pilotalekuan

Udalak eta Aspe enpresak hitzarmena sinatu zuten egubakoutzean; urtea amaitu bitartean 15 jaialdi izango dira Bergaran

EDU MENDIBIL

**Bergarako Udal Pilotalekuak ibilbide berriari ekingo dio domekan. Azken urteotan zirkuitutik kanpo egon ondoren, berriz ere profesional mailako partiduak jasoko ditu Bergarak. Aspek eta Udalak hitzarmena sinatu dute.**

Profesional mailako pilotariak itzuliko dira domekan Udal Pilotalekura. Aspe enpresak eta Udalak sinatutako akordioaren arabera, urtea amaitu bitartean pilota jaialdiak izango dira Bergaran. Azken urteotan zirkuitutik kanpo geratu da Udal Pilotalekua; iaz birritan bakarrik jokatu ziren lehen mailako partiduak Bergaran. Ibilbide berri honetan Udal Pilotalekua lehen mailakoa izatea da Udalaren asmoa.

## ABENDURA ARTEKO AKORDIOA



Esan bezala, domekan, martxoaren 13an, izango da lehen jaialdia, 17:00etan hasita. Del Rey eta Galartza VI.a aurrez aurre izango dira, buruz buruko txapelketako aurre kanporaketan. *Estelarrean*, Titin-Elkoro eta Gonzalez-Pascual bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta jaialdiari

amaiera emateko Galartza V.ak eta Urberuagak Baleztina eta Apeztegiaren kontra jokatu dute. Sarrerak 25 eta 10 eurotan salgai jarriko dituzte, domekan bertan. Frontoiko takila 15:30ean zabalduko dute. ETBko lehen kateak zuzenean eskainiko ditu jaialdiko lehenbiziko bi partiduak domekan.

## ABENDURA ARTEKO AKORDIOA

Victoriano Gallastegi alkateak eta Patxi Mutiloa Aspekoren gerentek aurreko egubakoitzean sinatu zuten hitzarmena. Horren arabera, Udalak 18.000 euro ordainduko dizkio Asperi urtea amaitu bitartean Bergaran 15 jaialdi antolatzeagatik. Beraz, jaialdi bakoi-tzeko 1.200 euro ordainduko ditu Udalak. Mutiloak eta alkateak aditzera eman zuten, buruz buruko txapelketako bizpahiru kanporaketa jokatu dira Bergaran eta lau terdiko txapelketako partiduak ere ekartzeko konpromisoa hartu du Aspek.

Victoriano Gallastegi alkatea pozik azaldu zen lortutako akordioarekin: "Akordioa abendura artekoa den arren, handik aurrera ere luzatzea nahiko genuke. Pilotazaleen onerako partiduak Eibarren eta Bergaran izatea litza-



Buruz buruko aurre kanporaketa, Del Rey (ezkerrean) eta Galartza VI.a aurrez aurre izango dira domekan.

teke onena". Patxi Mutiloak Bergaran partiduak programatzea partxe bat ez dela azaldu zuen: "Orain, Bergarara etortzeko beha-

rrean aurkitu gara Eibarko Astelena pilotalekuko jabeekin akordioarik ez zegoelako. Bergarako maila handiko pilotalekua da eta

etorkizunean ere, Astelenako auzia konpontzen denean, Bergarak ere tokia izan dezake gure programazioan".

FERNANDO OREGI/BERGARAKO PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

## "Golak egiteko txispa izan eta atzean erraztasun gutxien eman behar dugu"

E.M.

**F**ernando Oregik (52 urte) debut ona izan zuen preferente mailako taldearekin: Bergarak 4-1 irabazi zion zapatuan Oiartzuni. Jaitsiera postuak sailhesteko borrokan, bihar EHU izango dute bisitari Agorrosinen, 16:30ean.

### Zapatuko garaipenak konfiantza emango zion taldeari...

Bai, jokalarientzat inportantea zen zapatuko partidua. Jarra onarekin ikusi nituen Oiartzunen aurka, eta nahiz eta 0-1ekoarekin gauzak okertu zitzaizkigun, partiduari buelta emateko gauza izan ginen.

### Zer gertatu da taldea hor egoteko?

Arrazoia bategatik edo besteagatik ez dira gauzak ondo irten, baina aurrera egin behar dugu. Orain, geratzen zaizkigun partiduetan zentratu behar gara. Aurrean golak egiteko txispa izan



ARTXIBOA

behar dugu, eta atzean ahalik eta erraztasun gutxien eman behar dugu. Talde serio bat izan behar dugu. Ea zulotik ateratzen garen.

### Entrenatzailea aldatzeak ekarriko du soluzioa?

Denborak esango du hori. Orain arteko emaitzen dinamika

aldatzen saiatu behar gara. Liga amaitzeko 11 partidu geratzen dira, eta posible ikusten dut taldeak jaitsiera sailhestea. Arerio gogorak izango ditugu, baina bost partidu irabaztearekin nahikoa izan daiteke. Etxeko partiduetan zaleek ere zerikusia izango dute.

### Gorka San Vicente eta Javi Alejandro taldera itzuli dira.

Biak ere jokatzeko zeuden, futbola utzita, eta liga amaitu bitartean lagungarriak gerta daitezke. Gorkak bi gol egin zituen zapatuan, eta Javi Alejandrok ere bere aukerak izan ditzake liga amaieran. Aurrean jokatu du eta golegilea da; ea sasoi puntua hartzen duen laster.

### Bihar EHU dator Agorrosinera...

Partidu oso zaila izango da. Saikapenean bigarren daude EHUkoak eta oso jokalaria onak dituzte, Realaren talde filiala da eta. Ea partidu ona egiterik daukagun.

IGERILEKUA

### Hurrengo astean itxita izango da igerilekua

Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, Agorrosingo igerilekua itxita izango da martxoaren 14tik 19ra bitartean. Urteroko garbiketa egiteko itxiko dute igerilekua.

Sei egunez itxita egon ondoren, domekan, martxoaren 20an, irekiko dute berriz ohiko ordutegiarekin.

FUTBOLA

### Lau partidu jokatu dira Ipintzan asteburuan

Infantil mailako futbol-8ko taldeak Aloña Mendi hartuko du zapatuan, 10:30ean, eta jarraian senior mailako nesken taldeak Anaitasunaren aurka jokatu du, 12:00etan. Lehen gazte mailan Bergara eta Kostkas izango dira aurrez aurre, 18:30ean. Domekan, bigarren gazte mailako taldeak Beasainen aurka jokatu du, 11:30ean.



ATLETISMOA

# Lazkano eta Pildain, Sahararik bueltan

Saharako Maratoia egin zuten aurreko astelehenean; sirokua izan zuten etsairik handiena

EDU MENDIBIL

**Esteban Lazkano bergararrak (36 urte) eta Imanol Pildain antzuolarrak (39 urte) Sahara-ko Maratoian hartu zuten aurreko astelehenean, otsailaren 28an. Kirola egiteaz gain, sahararren egoera gertutik ezagutzeko aukera izan dute.**

Ia astebete eman dute Saharan Imanolek eta Estebanek. Esan bezala, maratoia egiteaz gain, hango bizimoduaren berri izan nahi zuten. Esperientzia guztiz positiboa izan dela diote: "Oso baldintza eskaseta bizi dira sahararrek, osasun eta higie aldetik premia handiak dauzkate eta, hala ere, duten guztia eskaintzen dizute. Oso eskuzabalak dira Ez genuen hango egoera ezagutzen eta benetan gogorra dela hango bizimodua, ez daukate ezer. Euskaldunoi oso harrera ona egin ziguten. Hango familia baten etxean egin dugu lo eta primeran tratatu gaituzte. Egonaldia motza egin zaigu, harremana sortzen hasia zenerako bueltatu beharra izan dugu-eta".

### MARATOIAN, SIROKOA

Aurtengoa Saharako Maratoia- ren bosgarren ekitaldia izan da. Lasterketa Aaiungo kanpamentuko Olof Palme ikastetxearen inguruan hasi zen, 09:30ean. 100



Esteban Lazkanok (argazkian) eta Imanol Pildainek maratoia amaitzea lortu zuten.

bat partaide izan ziren, tartean hamabi euskaldun. Marka gutxienekoa bazen ere, Lazkanok bost ordu eta 20 minutu behar izan zituen proba amaitzeko eta Pildain 10 minutu beranduago iritsi zen helmugara. Vincenzo Castellano italiarrak irabazi zuen proba, hiru ordu eta hiru minutuko markarekin. Ibilbidea baino, sirokua izan zuten etsairik

*"Haizeak 100 kilometro orduko abiadura hartu zuten proba egunean"*

handiena: "Haizeak 100 kilometro orduko abiadura hartu zuen eta zaila zen korrika egitea; zapia, mendiko betaurrekoak, txapela eta polaina antzeko batzuk jantzi behar izan genituen" dio Estebanek. Lasterketan 20-22 gradu bitarteko tenperatura izan zuten. Korrika egitera baino, Saharara plan lasaigoan itzultzeko prest dira biak.

### FOTOKIROLA



### Shotokan eta Giartzu taldeetako karatekak Gipuzkoako Txapelketan

Bergararrak ondo baino hobeto aritu ziren Gipuzkoako Karate Txapelketan. Katetan, alebin mailan, Haizea Inarra 3. eta Ane Vicente 4.a izan ziren eta mutiletan Mikel Aginagalde 2. eta Jon Urkia 3. sailkatu ziren. Kumitetan, Julen Arana lehena izan Pablo Elkoroiriberen aurretik infantil mailan, 40 kilotik azpikoetan; gazte mailan, 55 kilotik azpikoetan, Kepa Odriozola eta Aitziber Ferreiro bigarren izan ziren. Giartzu taldetik, Jon Gantxegi lehena izan zen 70 kilotik azpikoetan eta Julen Odriozolak bigarren postua eskuratu zuen.


## Ibarguren, Balentziaga eta Labaka, bikain Zarautzen

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko hiru igerilarik parte hartu zuten junior mailako Euskal Herriko Txapelketan. Bergarako taldea ordezkatzuz, Ana Balentziaga, Nielka Ibarguren eta Mikel Labaka izan ziren otsailaren 26an eta 27an Zarautzen jokatu-tako txapelketan.

Ibarguren bular estiloko 200 metroko proba irabazi zuen

eta hirugarrena izan zen 50 eta 100 m-ko probetan. Labakak, berriz, hirugarren postua lortu zuen 100 m estiloketan; bizkar estiloko 100 m-ko proban, berriz, laugarrena izan zen eta tximeleta estiloko 50 m-tan 9.a izan zen. Azkenik, Ana Balentziaga bosgarrena izan zen 50 eta 100 m-ko estilo libreko probetan eta 200 m-koan 9. postua eskuratu zuen. Hirurek maila bikaina azaldu zuten Zarautzen.



Mikel Labaka, Ana Balentziaga eta Nielka Ibarguren.

### SASKIBALOA

#### Hiru saskibalo partidu izango dira zapatuan

Kadete mailako taldeak Arrasateren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 12:00etan. Arratsaldean, berriz, junior mailako taldeak La Salle hartuko du, 19:15ean.

Senior mailako taldeak, berriz, Mariaren Lagundian jokatu du bihar, zapatua, Ametsa taldearen aurka, 16:00etan hasita.

### ERAKUSKETA

#### Mendiko argazkiak kultur etxean domekara arte

Felix Inurrategi-Baltistan fundazioaren *Elkartasunean mendia bide* izenburuko argazki erakusketa ikusgai izango da kultur etxean domekara arte, martxoaren 20ra arte.

Erakusketa aretoa ohiko ordutegian egongo da zabalik: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan eta domekan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Mendiko hainbat argazki daude ikusgai.

### ESKIA

#### Aste Santuan Alpeetara joateko irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeko eski sailak Aste Santuan Alpeetara joateko irteera iragarri du. Hain zuzen ere, Motaretara (Hiru Haranak) joango dira Pol-Poleko kideak, martxoaren 25etik apirilaren 2ra bitartean.

Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 zenbakian.

### LABEGARAIETA

#### PARTIDUAK

##### ZAPATUAN, KANPOAN

10:00: Kalaveras-Belengua. . . . . Egurre  
11:00: Egurre-Niu Tim . . . . . Belengua

##### ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: A Ze Flaxa-Pagomendi. . . . . Komando  
17:00: Komando-Fac. . . . . Pagom.  
18:00: Kalaveras-KMP . . . . . Cosa No.  
19:00: Mongatxurak-Cosa Nos. . . . . Pirulot.  
20:00: Pirulotarrak-PDS . . . . . Mongat.

##### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Kalaveras-Txipiron. . . . . Ganbara  
10:30: Ganbara-Canalejas. . . . . Txipiron  
11:30: Pagomendi-Agirrebeña. . . . . Irubide  
12:30: Irubide-Errotagain. . . . . Agirreb.  
16:00: Fit Automocion-De Resak. . . . . Brescia  
17:00: Bayer-Brescia. . . . . Fit Auto.  
18:00: All Blacks-Komando. . . . . Bayer  
19:00: PDS-KMP . . . . . SDTNT  
20:00: SDTNT-Pirulotarrak . . . . . KMP

AMAI ANDUEZA



# Geurean giro atsegina!



**Eguneko menuak**  
Bertan jateko eta etxera eramateko  
♦  
**Afariak**



## ETXAGI

Masterreka 8 • Tel.:943 76 53 12



Aro berria,  
erakusketa berria.



**jakina**  
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10  
BERGARA  
943 76 03 30



ANTZERKIA/ Korrika-AEK beka irabazi duen obra

# 'Euskararen zazpi bekatu nagusiak' antzezlanaren zapatuan Novedadesen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bihar, zapatua, Korrikaren aldeko eguna izango da Bergaran. Egundorretarako antolatutako ekitaldi nagusia ikusteko aukera izango da: *Euskararen zazpi bekatu nagusiak* antzezlanaren, hain zuzen ere. Obra horrek Korrika-AEK beka irabazi duen *Euskararen zazpi bekatu nagusiak* lana antzetzeko dute Novedades aretoa, 22:00etan.

Gauean, beraz, Korrika Batzordeak antolatutako ekitaldi nagusia ikusteko aukera izango da: *Euskararen zazpi bekatu nagusiak* antzezlanaren, hain zuzen ere. Obra horrek Korrika-AEK beka irabazi du.

Aitzpea Goenagak idatzitako antzerki testuan oinarrituta dago. Olatz Beobidek eta Edi Naudok zuzentzen dute eta aktoreak Niko Lizeaga, Mikel Laskurain eta Lierni Fresnedo dira.

Korrika kulturalaren baitan antolatutako ekitaldia izanik, hainbat lekutan antzertu dute jadanik, eta jendeak gustuko izateaz gain, barre asko egin duela jakinarazi digute antolatzaileek.

## EUSKARAREN ARAZOAK

Euskara ikasi, erabili, bizi eta hitz egiteko behararen arrazoia da obraren mamia. Euskararen egunerokotasunean sortzen diren hainbat egoera bitxi erakutsiko ditu antzerkiak, euskararen arazoak mahai gainean jarrita. Ikusi

le bakoitzak bere ondorioak ateratzea da helburu nagusia.

Egileak zazpi bekatu nagusiak (amorrua, lizunkeria, zuhurkeria, bekaizkeria, nagikeria, handiustea eta tripazainkeria) istorio banatan euskarari txertatuko dizkio. Horrela, hamar minutuko zazpi esketx ikusi ahal izango dira.


Bergarako enpresaburu aprobetxategi bat ikusiko da taula gainean, Pirinioetan *Xiberolandi* parke tematikoa antolatu nahi duena, euskal esentziak gordezke, eta artzain zuberotarrari lursaila erosi behar diona; edo 6. maila egokitzen zaion arren, hita-noak sexualki kilikatzen duela eta, alfabetatze taldera igaro nahi duen euskaltegiko ikaslea; edo gizartearen axolagabekiaz minutuko idazlea...

Novedades aretoa izango da antzerkia. Sarrerak leihatilan bertan eros daitezke hamar euro ordainduta. Aurrez ere badago erosteko aukera Pol-Pol, Arrano eta Ariznoa tabernetan. Aurrez erosiz gero sarrerak zortzi euro balio du.

## ARRATSALDEAN EKINTZAK

Antzerkia Korrika batzordearen apustu gogorrena bada ere, arratsalde partean izango dira hainbat ekintza.

Munibe plazan 16:30etik 18:00etara bitartean umeen txokoa izango da eta plazan, berriz, gaztetxoendako malabareak.



BERRIGARA

Mikel Laskurain bergararra izango da, besteak beste, taula gainean.

Kalea girotzeko trikiti eta dantza saioa izango da 18:00etan; eta bertso-triki poteoa egingo dute gero 19:00etan hasita hainbat tabernatan eta kalean.

Antzerkiaren ostean, 23:00etan, kontzertua egongo da Ekin eta Ttakunpa taldeekin gaztetxean. Dantzarako girorik ez da faltako, beraz.

# Extremadurako ogi mamien eguna domeka eguerdian San Martin plazan

I.A.

Arrasateko Corazon de Encina Extremadura elkarteak ogi mamien eguna ospatuko du domekan, San Martin plazan. Ogi mamiak doan jateko aukera eskainiko dute, eta horretaz gain, Extremadurako beste hainbat produktu dastatu ahal izango dira.

Etzi, domekan, Extremadurako ogi mamien eguna ospatuko da San Martin plazan.

Urteroko ohiturari jarraituz, Arrasateko Corazon de Encina Extremadura elkarteak aurten ere antolatu du jaiak.

Urtero sasoi honetan izaten da ogi mamien eguna eta urte bakoitzean, Debagoieneko herri bat aukeratzen dute ospakizunerako. Iaz Eskoriatzan egin zuten eta oraingoan Bergarari egokitu zaio txanda.

Domekan, beraz, Extremadurako ogi mamiak doan jateko aukera egongo da Plazan.

Ogi mamiak Extremadurako neguko jaki oso tipikoa da. Birrindutako ogia hartu, olioarekin frijitu eta urdaia, berakatzatza eta piperrak gehituta egiten da.

## EXTREMADURAKO PRODUKTUAK

Ogi mamiak gain, besteak beste, urdaiazpikoa, txitxi-burduntziak, gazta, pestiñoak, erroskilak eta loreak izeneko gozo tipiko batzuk jan ahal izango dira. Pitarroso ardo gorria eta Trampal beltza edateko aukera ere egongo da.

Ogi mamiak doan izango diren arren, gainontzeko jakiak eta edariak ordaindu egin beharko dira.

Salmenta puntua 11:00etatik 14:00etara bitartean egongo da San Martin plazan.

Jai honekin herriaren giroa sortzeaz gain, Extremadurako gastronomia ezagutarazi nahi dute.



GOIENKARIA

Extremaduran neguko jaki tipikoa dira ogi mamiak.

## KULTURAPILULAK

### ABY-KEM taldea eta Aitor Pedrejon gaur Elgetako Espaloian

Aitor Pedrejon bakarlarria eta ABY-KEM taldea (lehengo AK-47) izango dira gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian. Danbaca Birako kontzertua 22:30ean hasiko da. Bertan, Oñatiko Txuletons rock taldeak ere jardungo du. Gaurko kontzertuan batzen den dirua ikastolen aldeko Kilotmetroak jaiari diruz laguntzeko izango da.

### Techno jaialdia izango da zapatu gauean Jam aretoan

Bihar, martxoak 12, techno jaialdia izango da Jam aretoan gauerdian hasita. Roku, Trampas, Edmund, Roa eta Alkate disko jartzaileekin batera Jamekoek bertakoek jardungo dute. Sarrerak 15 euro balio du. Bestalde, datorren egubakoitzean, martxoaren 18an, Amparanoia taldeak bere azken lana aurkeztuko du Jamen. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak aurrez eros daitezke 14 eurotan.

### Argazki ikastaroa antolatu dute Udalak eta Pol-Polek

Argazki ikastaroa antolatu du Udalak, Pol-Pol argazki taldearen laguntzaz. Ikastaroan argazkilaritza analogikoa eta digitala landuko dira. Apirilaren 4tik maiatzaren 11ra bitartean izango da, astelehen, martitzen eta eguaztetenetan, 19:15etik 21:15era. Kutxan ordainketa egin eta agiria Kultura Etxera eraman behar da izena emateko. Langileek 40 euro ordaindu behar dituzte; ikasleek eta langabeek, berriz, 25 euro.

### Udal Musika Banda domekan pilotalekuan

Ohiturari jarraituz, hilabeteroko kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak domeka honetan. Emanaldia 12:30ean izango da Udal Pilotalekuan. Alfredo Gonzalez Chirlaque bandako zuzendariaren esanetara honako bost obrak joko dituzte Bergarako musikariek: J.M. Usandizagaren *Euskal Festara*; Vicente Belliniren *Norma* oertura; John Lennonen *Imagine* kanta ezaguna; J. Serranoren *La canción del olvido*; eta B. Appermonten *Jericho* fantasiako lana amaitzeko.



# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia. Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE ZERBITZURA!!**

## Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



E, TXO!

**GOMENDATZEN DIZUT LEHIAKETA BERRIZ ABIAN**

Gazte Informazio Zerbitzuak *Gomendatzen dizut...* lehiaketa antolatu du. Oporretako, herri, leku, museo, natura-gune, jabetxe, ekimen edo paisaien gaineko informazioa jaso nahi da horrela. Apirilaren 22ra arteko epea dago gomendioak honako helbidera bidaltzeko: [www.bergara.es/ Udala/Antolaketak/Kultura/Info\\_gazte/Berriak/ Gomendatzen](http://www.bergara.es/ Udala/Antolaketak/Kultura/Info_gazte/Berriak/ Gomendatzen). Parte-hartzaile guztien artean landetxe batean aste-buruko egonaldia zozketatuko da.

**SEXUALITATEAREN GAINEKO FILM LABURRAK**

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Sexmetraia film laburren lehiaketa antolatu du. Film laburrak sexualitate anitzen erakusleho bilakatuko dira, gizon eta emakumeen errealitateak gizarteratuta. Lehiaketan ekainaren 10a baino lehen eman beharko da izena postaz edo Internet bidez honako helbideetan: Sexmetraia 2005/Sexologia Zerbitzua/Bitteri 3 /Arrasate edo [www.sexologiazerbitzua.com/sexmetraia](http://www.sexologiazerbitzua.com/sexmetraia).

**GIPUZKOAKO ATERPETXEEN WEBGUNE BERRIA**

Gipuzkoako aterpetxeen berri jakiteko webgune berria ipini dute abian [www.gipuzkoa.net/albergues](http://www.gipuzkoa.net/albergues) helbidean. Webgune horretan aterpetxeen gaineko informazioa, argazkiak, tarifak... aurki daitezke. Gainera, Aste Santua laster datorrenez, saretik egin daitezke aterpetxeetarako erreserbak. Hala ere, nahiago izanez gero, telefonoz (901 10 00 90) edo e-postaz ([erreserbagunea@gipuzkoa.net](mailto:erreserbagunea@gipuzkoa.net)) ere egin daiteke.

**GUREGAIK/ HEGALDI MERKEAK SAREAN**

**Hegazkinez merke bidaiatzeko aukera**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Aste Santua gainean dugu eta askok gertu izango du bidaiak. Hala ere, egongo da prestaketak azken ordurako utzi dituenik. Hegazkinez bidaiak egin nahi duenak Internet bidez merkeago lor dezake txartela.**

Etxetik mugitu gabe, aurretiaz eros daitezke bidaiak txartelak Internet bidez. Gehienetan merkeagoak izaten dira hegaldiak.

Loiuko aireportutik Londreserako hegaldiak eskaintzen ditu [easyjet.com](http://easyjet.com) konpainiak. Miarritzekoan antzerako zerbitzua eskaintzen du [ryanair.com](http://ryanair.com)-ek.

Tarifarik merkeenak lortzeko, onena erreserbak garaiz egi-

tea da. Hala ere, ez bazaigu inporta nora joan, eta edozein unetan bidaiatzeko prest egonez gero, azken uneko aukeretan benetako mahukak aurki ditzakegu. Horretarako [lastminute.com](http://lastminute.com) webgunea egokia da.

**HEGALDIK BILATZEKO WEBGUNEAK**

Bestalde, hegazkin konpainien webguneetara zuzenean joan gabe, badaude sarean hegaldi merkeak bilatzen laguntzeko webguneak ere.

Honako helbideetan aurki daitezke: [chollovuelos.com](http://chollovuelos.com); [ebookers.es](http://ebookers.es); [edreams.es](http://edreams.es); [megavuelos.com](http://megavuelos.com); [terminala.com](http://terminala.com); [transavia.com](http://transavia.com); [vuelosbaratos.com](http://vuelosbaratos.com); eta [ofertasparavia.jar.com](http://ofertasparavia.jar.com) bidaien gaineko bloga.



Hegazkinez merke bidaiak daitezke, Internet bidez txartelak erosita.

**LOTSABARIK/ Igor Zuazolazigorraka**

**“Batzuetan, gehiegi egiten dut berba”**

I.A.

**Berak esanda jakin dugu hitzuna dela Igor; galderei erantzuterakoan ere ez du zalantza izpirik egin. Gazteendako gauza gutxi ei dago Bergaran, eta beharbada horregatik joan nahi luke New Yorkera.**

**• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Gazteendako ezer gutxi dago herrian. Beraz, lokalak ipiniko nituzke, lagun artean gustura egoteko gutxienez.

**• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Tatu musika taldearen argazkia daukat ipinita.

**• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Gorrito dut *Día a día* saioa. Gustuko, berriz, *Alla tú*, kaxekin egiten duten lehiaketa.

**• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?**

Maria Teresa Campos ez dut gustuko, Euskal Herriaren kontra jarduten baitu askotan. Klaudio Landaren umorea, berriz, atsegin dut, berezia da.

**• Zerk amorratzen zaitu?**

Jendearen faltsukeriak.

**• Zer estimatzen duzu besteengan?**

Lagunen lagun izatea.

**• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Amodioari eta familiari.

**• Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Bertutea, beti gauzak egiteko gertu egoten naizela, ez naiz baterre geldoa. Akatsa, berriz, batzuetan gehiegi berba egiten dudala.

**• Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Tabernetan, jai giroan.

**• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**


Jatorra eta lagunen laguna.

**• Nora eta norekin egingo zenuke bidaiak bat?**

New Yorkera edozeinekin joango nintzateke. *Sólo en casa 2* filma ikusi nuenean piztu zitzaidan hara joateko gogoia.

**• Etorkizunerako amets bat?**

Ez dakit argi zer egingo dudan, baina ikasketak ongi amaitzea.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Lagunekin kalean ibiltzea • LIBURU BAT: Atxagaren *Soinujolearen semea* • FILM BAT: *Sólo en casa 2* • MUSIKA TALDEA: La quinta estación • KIROL TALDEA: Realak

**TIRABIRAKA/ Peru Azkarate**





**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze kaletan aurki dezakegu ezkerreko farola eta ze etxetan eskumakoa?

**GALDEDEBALDE**

**1.**  
Zein herritan ospatuko da 2007. urteko Kilometroak jaia?

- A/ Bergara.
- B/ Oiartzun.
- C/ Aretxabaleta.

**2.**  
Zein margolariren erakusketarekin zabalduko dute Aroztegiko aretoa?

- A/ Simon Arrieta.
- B/ Abdon Juaristi.
- C/ Juan Telletxea.

**3.**  
Saharako maratoiaren zenbagarren edizioa izan da aurtengoa?

- A/ Bigarrena.
- B/ Bosgarrena.
- C/ Seigarrena.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ANDONI BADIOLA** rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andoni! Galderen erantzunak hauek ziren: Bonofotoa: **Eduegi baserria.** Galde debalde: **1-B, 2-A, 3-B.**



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Heineken garagardoa**

33 cl-ko lata

**0,57 €**

95 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**BERGARAROSPETSUAK**


**Andres Ondartza (eta 2)**

KOLDO PEREIRA

**K**arlos V.ak eta haren amak, Juanak, zegokion ahalmena eman ziotenean, 1536an bere etxearen maiorazkoa eratu zuen. Maiorazkoan Bergarako Errebal kalean zituen etxeak eta gainerako jabetza eta baratzeak bildu zituen. Pedro Perez Arostegiren oinordekoei erositako lursaila ere maiorazkoari gehitu zizkion. Maiorazkoari esker, jakin dugu bere etxearen atzealdeko gunea eta pasabide batzuek bat egiten zutela San Pedro parrokiarekin. Malatua eta Amilaga baserriak ere sartu zituen maiorazkoan.

Komendadoreak eta bere emazte Magdalena Araotzek 1566ko irailaren 13an egindako testamentuan zehazten denez, komendadorea Maria Perez Azkaraterekin ezkondu eta egon zen lehenago, baina ez zuten seme-alabarik izan eta emaztea ezkondu eta urtebetera hil zen. Era berean, ezkontzatik kanpo izandako seme bat aipatzen du, Peru Martinez Ondartza izenekoa. Bere seme Peru Ondartza Araotzi ezkontzatik kanpoko semearen arimaren aldeko hileta-elizkizunak eta urteurreneko mezak egiteko agindu zion.

*Zegokion ahalmena eman ziotenean, 1536an bere etxearen maiorazkoa eratu zuen*



San Pedro eliza

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES**

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**REMENTERIA Altzariak**

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

# Bergarako futbol taldea 1952an

**B**ergarako futbol talde nagusia ez dabil oso fin aurten. Liga amaitzeko hamaika partidu faltan, sailkapeneko 17. tokian dago Bergara. Liga amaiera bitartean gogor egin beharko dute bergararrek jaietsiera postuak saihesteko. Fernando Oregi entrenatzaileak Igor Gordobil ordezkatu berri du mahoneroen aulkian eta entrenatzaile berriaren aginduetara jokaturako lehenbiziko partiduan, zapatuan, Bergarak 4-1 irabazi zion Oartzuni.

Gaurko taldeak alboko argazkian azaltzen den taldearen espirituari eusten badio, Bergarak eutsiko dio mailari. Argazkia 1952. urtekoa da, Bergara Kirol Elkartea sortu zutenekoa. Jose Mari Gallastegi izan zen elkarteko lehen presidentea, eta argazkian azaltzen dena, Bergara ordezkatzuz jokatu zuen lehenbiziko hamaikakoa.

Bergara KEren 50. urteurrena ospatzeko egindako liburutik hartutako argazkia da. Hauek dituzue erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jesus Ibañez, Luis Larrañaga Kikio, Andres Altzelai, Ramon Etxaniz, Jose Antonio Moñux *Pikatxon*, Larrañaga *Xapatero* eta Roman Lizarralde.

Makurtuta: Angel Lintzoain, Jose Luis Osinalde, Akizu, Joseba Linazisoro eta Sanz *Gordito*.

Argazkia: BKE artxiboa



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,  
zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.  
Zain gaituzu!

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46    Zubillaga 10  
BERGARA            OÑATI  
943 76 45 53        943 78 24 13

# Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# ARDATZA


Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

# ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

# BERGARA

MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



# GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 11a / 236. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02



Kalebarrengo zubian egokitzapen lanak egin beharko dituzte, ibilgailu asko pasatuko da eta handik.

## Uzarragako zubia izango da herrirako sarrera

AINTZANE IRIZAR

**Diputazioak herri barrura sartzeko Beheko Auzo pareko sarbidearen proiektua egin zuen duela hilabete batzuk. Udala ez zegoen proiektu horrekin ados eta, hainbat batzarren ondoren, adostasuna lortu dute. Proiektu berria egingo du orain Diputazioak.**

Uzarragara joateko hartzen den zubitik eta Beheko eta Eguzki auzoen ostetik Lizarragara errepidea egingo dute. Errepide horren hasierako helburua zen Elay lantegira doazen kamioien eta autoen trafikoa murriztea herri barruan, Kalebarrean, bereziki.

Baina, orain, Lizarragarako errepidea izateaz gain, herri barrurako sarrera berria ere horixe izango da. Orain dela hilabete batzuk Beheko Auzo pareko herri barrurako sarreraren proiektua aurkeztu zion Diputazioak Udalarari. Udaleko arduradunak ez zeuden proiektu harekin ados; hainbat batzarren ondoren, Diputazioko eta Udaleko arduradunak adostasunera hel-

du dira, eta herri barrurako sarrera ere Uzarragarako zubitik egingo erabaki dute. Gaur egungo herrirako sarrera, Lapatza parekoa, kendu egingo dute.

Antzuolatik Bergara aldera irten nahi duten ibilgailuendako, berriz, gaur egungo tokitik egin nahi du irteera Udalak; hori bai, hobekuntza batzuk eginda.

**KALEBARRENGO ZUBIAN EGOKITZAPENAK**  
Gauzak horrela, herrira Beheko Auzotik sartzen diren ibilgailu gehienek Kalebarrengo zubitik pasatu beharko dute. Horregatik, egokitzapenak egingo dituzte zubi horretan; Zurrategitik zubira goazela, eskumako aldean bihurtune zabala egingo diote.

Bestalde, Bergaratik gatzela sarbide berritik herri barrura

edo Lizarraga aldera sartzeko, errete luze bat jarriko dute errepide erdian; Ibarreta gainetik Etxe-Zuri parerainokoa izango da errete hori. Horretarako, errepidea zertxobait zabaldu egin beharko dute.

Zumarraga aldera irteteko, berriz, errepide erdian azelerazio errete bat egingo dute. Gaur egun ere badago txiki bat, baina, gero egingo dutena luzeagoa izango da, ia Lapatza parerainokoa.

Uzarragarako zubia ere zabaldu egin beharko dute, noski. Oraingoaren halako bi izango da.

Adostutako kontu hauekin guztiekin, proiektu berria egingo du orain Diputazioak, udarako. Datorren urte hasieran lanekin hastea espero dute Diputazioko eta Udaleko arduradunek.

**ARAUEN ALDAKETAK, BERTAN BEHERA**  
Gaur, egubakoitza, osoko bilkura egitekoak ziren. Hantxe arauen aldaketak behin betiko onartekoak ziren arren, gai hori mahai gainean lagatzeko asmoa zuten. Izan ere, goian aipatu ditugun asmo horiek guztiak aurrera eramateko, beste arau batzuk ere aldatu beharra egingo da.

*Udarako proiektu berria egingo dute eta 2006. urte hasieran lanekin hastea espero dute*

## KULTURA

### Maristen gaineko erakusketa datozen bi asteburuetan

A.I.

Maristek jarritako San Joseren irudiak 75 urte bete dituela ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Atzo, eguna, Jose Luis Santamaria maristak berbaldia egin zuen.

Datozen bi asteburuetan, berriz, maristen gaineko erakusketa egongo da zabalik. Atzo inauguratu zuten erakusketa hori, eta hilaren 12an, 13an, 19an eta 20an egongo da zabalik, Olanaren etxeko aretoan, ohiko ordutegiarekin: 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara, hain zuzen ere.

#### ESKOLAKO MATERIALA

Erakusketa osatzeko herritarren laguntza izan dute; hainbat argazki, dokumentu eta eskolako material laga du maristetan ibiltzen hainbat herritarrek. Maristek euren ere hainbat material lagundute Udalarari, hala nola, maristen fundatzaile Champagnak eskultura bat.

Bestalde, ikus-entzunezkoak prestatu dute eta ikusgai egongo da erakusketan: Iñaki Arangu maristari, maristetan ikasle izan ziren Mateo Aranguren eta Victoriano Barrenari eta Jose Aiz Zabalo alkateari elkarrizketa egindate ikus-entzunezko horretan.



Maristen hainbat argazki eta dokumentu jarriko dituzte ikusgai Olanaren etxean.

## LABUR

### Patxi Cabo eta Karmen Irizar presoak itxialdian daude martxoaren 15era arte

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hainbat protesta ekintza egingo dituzten dihardu, euren eskubideak bete daitezela eskatzeko. Horretarako, txandaka, itxialdia egiten dabilta. Martxoaren 13ra arte, Patxi Cabo eta Karmen Irizar itxialdian egongo dira; hilaren 4an hasi zuten protesta ekintza hori.

Bestalde, aipatzekoa da Karmen berrira Valladolidera eramango dutela oraingo astean; otsailaren 25ean ekarri zuten Langraitzen, senarraren aitaren hileta elizkizunetara ekartzeko. Orduan, Patxi Cabo eta Karmen Irizar ekarri zuten, ama bisitatzaera, gaixorik dago eta.



KIROLA

# Arrolak urteko batzar orokorra egingo du eguenean, hilak 17

A.I.

Datorren eguenean, hilak 17, urteko batzar orokorra egingo du Arrola mendizale elkarteak. 19:00etan izango da batzar hori, Olaran etxean. Ondoren, 19:30ean, Jose Ramon Agirre Marronek Patagoniara egindako bidaiaren gaineko dokumentala eskainiko du.

Urteko batzar orokorrerako deialdia egin du Arrolak. Elkarteko bazkide guztiei egin die deialdia; datorren asteko eguenean, hilak 17, izango da batzarra, 19:00etan, Olaran etxean.

Iaz antolatutako irteeren eta ekitaldien balorazioa egingo dute batzarreko kideek; diru kontuen gaineko informazioa ere emanago dute. Bestalde, aurtengo prestatu duten irteeren eta jardueren berri ere emango dute. Azkenik, elkarteko batzordea osatzen duten kide batzuk laga egingo dute euren kargua eta berriak sartuko dira. Aurrerago batzorde berria osatzen duten kideen artean, presidente berria aukeratu dute.



Batzarraren ondoren, Marronek Patagoniako dokumentala eskainiko du.

## PATAGONIARA BIDAIA

Jose Ramon Agirre Marron mendizale ezagunak, Patagoniara egindako bidaiak kontatuko digu batzarraren ondoren; ikus-entzuzko bat ikusteko eta Marronen

azalpenak entzuteko aukera izango dugu. Argentinan eta Txilen ibili zen ataundarra eta mendiaz eta naturaz gozatzeaz gain, hango indigenen bizimodua ezagutzeko aukera ere izan zuen.

LABUR

## 'Heriotzaren gaia umeeekin zela tratatu' hitzaldia eguenean, hilak 17, ikastetxean

Datorren asteko eguenean, martxoak 17, herriko gurasoendako hitzaldia antolatu du Herri Ikastetxeak. Eskolan bertan izango da, 18:00etan. Gai ezberdina eta oso interesgarria dakarkigute: heriotzaren gaia, hain zuzen ere. Patxi Izagirre psikologoak, *Heriotzaren gaia umeeekin zela tratatu* izenburupean egingo du hitzaldi hori. Badira gai batzuk umeeekin berba egitea eta haiei azalpenak ematea zaila egiten zaizkigunak. Horrexen gainean, hain zuzen ere, jardungo du Patxi Izagirrek.

## San Jose azpiko aldean, Beheko Auzoaren parean, aparkalekuak egingo ditu Udalak

Udaleko arduradunen asmoa da Beheko Auzoaren parean, erreka-aren beste aldean, aparkalekuak egitea. Guztira, 90 bat ibilgailurendako aparkalekuak egitea aurrez ikusten dute. Horretarako arrazoiak da, batetik, Beheko Auzoan dauden aparkalekuak kendu egingo dituztela; bestalde, maristen eraikina zegoen tokian etxebizitza mordoak egingo dituzte eta aparkalekuak behar izango dira hantxe biziko den jendearendako. Errekaren alde batetik bestera igaro ahal izateko, berriz, oinezkoendako zubitxo bat eraikitzeko asmoa dute.

## Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra Teledonosti txapelketako finalerdietan

Donostiako Antiguu auzoan jokatzeko dihardu Aitor Mendizabal Olalde elkarteko pilotariak, Teledonosti txapelketa. Kadete mailako txapelketan dihardu eta finalerdietara iritsi da. Gaur, egubakoitza, dauka partidua, Iturriotz pilotari nafarraren aurka. Hego Euskal Herriko lau probintzietako eta Errioxako hamabi pilotari aukeratu eta gonbidatu zituzten txapelketa horretara. Hiru pilotariz osatutako lau talde egin zituzten eta talde bakoitzeko onena iritsi da finalerdietara.

## HERRITARREN HITZA / Ainhoa Ugarteburu · Langilea

### Lau urte

Denboria azkar pasatzen danan sentsasiñua dauku. Urte zahar eguna bukatu orduko dator martxua, ta martxua pasau ta udia etorri...

Igual, urte sasoi batzuk luziaguak edo gogorraguak egitten jaku, negua dalako edo tristura bategatik... baina gehixagotan entzungo dogu, "jo, akordau orduko pasau jat urte hau be".

Neurrixa hartzeko oso ona bestien bizitza begiratzia da. Zein azkar hazten dien bestien seme-alabak, edo zein azkar egin daben lagun horrek gaixotasun horretatik hobera...

Badakigu, eurentzat, negar gau bukaezinak izan diela, hurrengo goiza noiz iritsiko. Pentsatzen jarriz gero, urtiak luziak die, minutu, ordu, egun, aste eta hilebetez osatuta, askotan gu konturatu ez arren, danetik pasatzen jaku egun bakar baten, eta ezertxo bez urte oso baten.

Ba pentsa lau urtian zenbat gauza pasatzen jakun. Lau urtian, ezkondu, banatu, seme-



**"Nik badakit batzuk nun pasau dittuen azkeneko lau urtiak. Kartzelan"**

alabak euki, lanez, etxez edota kotxez aldatu, maitatu, gorrotatu, mila gauza txiki ta haundiz egiten ditugu gure historia txikixa.

Nun zenden zu, 2001. urtian, ze etxetan, ze lagunekin, ze eitten ziñuan?

Nik badakit batzuk nun pasau dittuen azkeneko lau urtiak, 2001eko martxotik. Kartzelan. Epaiketa baten zain. Errugabetasun presuntzioa

desagertu dan estatu baten, zain euren eguna noiz iritsiko.

Gainera, ez die izango ez lehenenguak ezta azkenenguak be; beste batzuk, oin dala bi urte, hiru urte, urtebete, urte erdi kartzeleratu dittuztenak, egoera igualian egon leizke. Zain.

Egunak luze edo motz jun, gauza asko pasau edo errutina ta egunerokoarekin borrokan egon gau ta egun. Ez da normala, ez da naturala. Ez giñake ohitu bihar. Denbora asko dalako, gauza asko, munduak buelta emuten dau minutu batzutan.

Lau urte, pentsa.

KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Martxoak 12

16:00: Antzuola-Donibane (Erregion.)

18:00: Antzuola-Kostkas (Gazteak)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Beasain 0 Antzuola 2 (Gazteak)

Gainerako partidua guztiak, Estalan jokatzeoak zirenak, bertan behera laga behar izan zituzten, elurragatik.

#### PILOTA

Udaberri Saria

Olalde-Ikaskirola (eskuz kad.)... 22-12

Olalde-Eibar (eskuz nagusiak)... 8-22

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. 943 76 60 89  
Faxa: 943 76 60 14

**ZAHAR BERRITZEAK:**  
Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilatuak

**Eta orain....  
GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko martxoaren 11a / 219. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Korrika dela-eta, pailazoen emanaldia eta afaria izango dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren eguaztenean, martxoaren 16an, pasatuko da Korrika 14 Elgetatik, arratsaldean. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika batzordeak bezperarako eta egunerako. Besteak beste, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eta afaria izango dira.

Korrika batzordekoak lanean dihardute Korrika 14 Elgetatik pasatzen denerako gauza guztiak egoki gertatuta izateko.

Korrika martxoaren 16an, eguaztenean, 18:40 inguruan iritsiko dela Elgetara zehaztu dute antolatzaileek. Uberako bihur-gunearen ostean, Dormicoop inguruan hartuko dute lekukoa elgetarrek eta Bizkaiko mugara bitartean eramango dute.

Gaztetxeak, Esna Adik, Elgeta Auzolanian plataformak eta Euskal Herrian Euskarazek elkarrekin erosi dituzte kilometroak. Gainontzeok Udalak, Herri Eskolak, tabernariak, Aralarrek, Bolinaga Metalak enpresak eta Goibeko kultura elkarteak hartu dituzte bere gain. Guztira, sei kilometro.



Korrika 14 eguaztenean 18:40 inguruan pasatuko da Elgetatik.

### PIRRITX ETA PORROTX

Korrika datorrela-eta, herria girotzeko izango da ekitaldirik. Martxoaren 15ean, 18:00etan, Espaloian Pirritx eta Porrotx pailazoen Patata, patata ikuskizuna izango da. Sarrerak salgai daude lau eurotan Espaloian, liburutegian,

Haizean eta kiroldegian. Baita Bergarako ludotekan ere.

Bestalde, martxoaren 16an, eskolako umeek Korrika txikia egingo dute 15:00etan herriko kaleetan. Ondoren Korrika pasatuko da Elgetatik 18:40 inguruan. Gero, giroa aprobetxatuta afaria

egongo da Ozkarbi elkartearen. Txartelak salgai daude 10 eurotan Haizean, gaztetxean eta Espaloian. Afalostean, Oskar Estangak eta Jaione Olazabalek osatutako Berriketan bikotearekin, euskal kanta ezagunak abesteko aukera izango da.

### HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Irakaslea

## SMSEDEZ!

Bere garaian SMS bat zer zen jakitea kosta bazitzaien ere, gaur egun edozein izkinatan entzun eta ikusten genuen hitz honekin, mugikorrek mezu soil bat adierazi nahi zutela konturatu ginen (SMS: Short Message Service). Nork ez du ikusi edo entzun tankera honetako esaldirik?: "SMS bat bidali ezazu eta lortu ezazu...", "Lehiaketan esku hartzeko..."

Egia esan eguneroko ogi bilakatu zaigu mezuen kontu hau. Ez da negozio makala batzuk egiten dutena kontu honen gainean. Esango dizue: "Azken finean mezu bat bidaltzeagatik..."

Baina beno, denok dakigu ez dela ohiko mugikorrek mezu bat. Mezu hauen balioa mezuko ez da makala. Hainbeste aldiz entzun dugun 0,90 euro + BEZ (garestiagoak ere badaude) inguru. Garai bateko pezetetara itzulita orotara 175 pezeta BEZ barne. Ez da txantxa. Aspaldian postal bat eta zigilu bat erosten gastatzen genuena gogoan hartuta aldea izugarria da.



"Egia esan eguneroko ogi bilakatu zaigu mezuen kontu hau"

du duenarekin. Sari batzuk barre gurea ematen dute, ikusi dut inoiz edo behin DVD bat

Aitzitik, komunikabideetako arduradunek diru sarrera handia ikusi dute bide honetatik. Dirua lortzeko bide erraz bat, era laburrean patrikak betetzeko iturria aurkitu dute.

Gainera, kasu askotan eskaintzen duten saria ez dator bat ikus-entzule bakoitzak bere mezuagatik ordain-

zozketatzen dela. Murrin behar da horrelako sari bat zozketatzeko, jakinda jaso dituzten SMS guztiak 1000 DVD erosi ditzaketela gutxienez.

Zoritxarrez oso urruti ikusten dut jada, lehiaketa batean parte hartzeko postal bat bidali behar zen garai hura. Pertsona batek milaka postalen artean bakarrik aukeratu eta irabazlearen izena ozen irakurtzen zuen garai hura. Gainontzeko lehiaketetako sariak ere ez dira beste mundukoak, salbuespenak salbuespen, denek egiten dute berdin, bat eman eta hamaika jaso.

### LABUR

#### Bazkaria eta kontzertua bihar gaztetxean

Urteurrena ospatzeko ekintzak izango dira bihar gaztetxean. 13:00etan bertso-trikupoteoa egingo dute herriko trikitilariekin eta Enaitz Alustiza, Jokin Labaien eta Iker Agirre bertsolariekin. 14:30ean bazkaria izango da eta ondoren, bertsoak entzuteaz gain, Twister erraldolan jolasteko aukera egongo da. Gauean, berriz, The Inkubutrikuarren eta Etxe bakar-lari berriztarraren kontzertua izango da. Amaitzeko, Bili disko jartzailearen saioa.

#### Datorren barikuan Udaberri Jaia egingo dute plazan

Eskolako umeek Aste Santuko oporrak hartuko dituzte datorren barikuan. Hori dela eta, Udaberri jaia antolatu dute. Goizean, 10:30ean hasitako loreak, gurasoek gertatutako pastelak eta beste hainbat gauza ipiniko dituzte salgai plazan. Jasotako dirua Eskola Txikien Jairako erabiliko dute. Bestalde, arratsaldean, umeendako jolasak egongo dira: tonbola, ohe elastikoak, arku tiroketa... Euria eginez gero pilotalekuan izango dira jolasak.

#### Danbaka Birako kontzertua gaur Espaloian

Gaur, barikua, Danbaka Birako kontzertua izango da Espaloian 22:30ean. Bertan jardungo dute Onatiko Txuletons taldeak eta Bergarako Aitor Pedrejon bakarlariek eta ABY-KEM taldeak. Batzen den dirua Arizmendi ikastolak antolatzen diharduen Kilometroei diruz laguntzeko izango da. Kontzertuaren helburuak dira ibarreko musika taldeak sustatzea, gazteei alternatiba eskaintzea, eta Kilometroei diruz laguntzea.



## ELKARRIZKETA

PELLO ALBERDI/PINTOREA

### “Maiatz aldera nire azken lanak Espaloian ipiniko ditut ikusgai”

I.A.

**G**asteizen daude ikusgai egunotan Pello Alberdi pintore elgetarraren lanak. Urte asko daratza pinturan, eta gaur egun zertan diharduen jakin nahi izan dugu. Laster Elgetan erakusketak egingo duela aurreratu digu.

**Nondik dator kizua pinturarako zaletasuna?**

Txikitatik izan dut gustuko marraztea. Umetan denok marrazten genuen, baina nire zaletasuna berezkoa dela uste dut.

**Ikasketa berezirik egin duzu?**

Bartzelonako Massana Arte Ederren eskolan bi urte eman nituen, baina gainontzean nire kontura jardun dut. Hala ere, jende ezagunaren lanei begira edo erakusketetan ikusitakoa gogoan hartuz beti ikasten da zerbait.

**Zein estilo lantzen duzu?**


Askotariko estiloak ikus daitzke nire lanetan. Lehenengo, estilo figuratiboarekin hasi nintzen, eta gero, pixkanaka, abstrakzioarako bidea hartu nuen. Pintura materikoa ere egin dut. Azkenaldian, berriz ere figuraziora bueltatu naiz.

**Zure koadroetan zer agertzen da?**

Azken lanetan batik bat hiri paisaiak ikusten dira; ez berez diren bezala, manipulaturak. Parean ikusten dudana nire erara islatzen dut koadroetan. Argazkiak ateratzen ditut eta haietatik komeni zaidana hartzen dut, horretan oinarrituta koadroak egiteko. Trama eta puntuak nahasten ditut.

**Zure lanak Gasteizko Felisa Navarro aretoan daude ikusgai. Nolako harrera izan du erakusketak?**

Lanak taberna batean ipiniz gero, jendeak beti egiten die begiratu bat. Baina gainontzean, arte galerietara edo erakusketak aretoetara jende gutxi joaten da, benetan pintura gustuko duena.



*“Azken lanetan batik bat hiri paisaiak margotu ditut, tramak eta puntuak erabiliz”*

**Elgetan ere erakutsi dituzu inoiz zure koadroak. Noizko herrian beste erakusketak bat?**

Maiatzean egitekoa naiz erakusketak Espaloian. Jendeak normalean ikusten ez dituen gauzak ikusi ahal izango ditu. Parean ipini ezean ez baita ikustera joaten.

*“Pintura benetan gustuko duen jendea baino ez da joaten erakusketak aretoetara”*

**Zure koadroak erakutsi ez ezik saldu ere egiten dituzu. Bizi daiteke pinturatik?**

Ez, asko saltzeko oso ona izan behar da eta izena eduki. Gainera, nik ez dut horrelakorik espero. Denbora pasatzeko margo-tzearekin nahikoa dut.

## LABUR

### Batasunak herri batzarra egingo du gaur hauteskunderi begira euren jarrera azaltzeko

Gaur, barikua, herri batzarra izango da udaletxean 20:00etan. *Oztopo guztien gainetik... orain Batasuna* lelopean egin dute batzarre-rako deia. Bertan hitz egingo dute Batasunaren egoerari buruz, eta apirilaren 17ko hauteskunderi begira alderdiak zein jarrera hartuko duen azalduko dute. Gaiaren gaineko informazioa nahi dutenei gonbita egin diete bileran parte hartzeko.

### Outlook Express programaren gaineko ikastaroa martxoaren 30ean KZgunean

Asteon ikastaro bat egin ostean, beste bat antolatu dute KZgunean martxoaren 30erako. Ikastarook interneten trebatu nahi dute-nendako dira. Martxoaren 30ean, 11:00etatik 13:00etara izango dira Outlook Express programaren gaineko eskolak. Gainontzean, arratsaldero egoten da zabalik KZgunea.

### Aurtengo Emakumeen Biran ez dute Elgetako gainera igoko txirrindulariek

Ekainaren 9tik 12ra bitartean jokatu da aurtengo Emakumeen Bira eta jadanik gertu dago ibilbidea. Aurtengo zenbait txirrindulariek izango ditu. Besteak beste, Elgetako gainera egin ohi zen erlojupeko igoera aldatu egin dute, eta aurtengo Goiuriara igo beharko dute txirrindulariek. Biraren amaiera, berriz, Bilbon izango da.



### Bihurguneak konpontzen hasi dira

Hasi dira Uberako eta Izarreko bihurtzeko lanak atzerapenean ostean. Elurra izan da, besteak beste, obrak atzeratzearen arrazoia. Hala ere, uztaillaren amaierarako lanak gertu izatea espero dute. Bihurguneen zabalera handitzeaz gain, zorua berri egingo dute eta eustormak eta hormigoia arekari egin. Seinale egokiak ere ipiniko dituzte. /I.A.

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**  
**TEL.: 943 76 92 71**

**Goibekokale**






Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

## Astra GTC berria

Fida zaitez zure begiez



**Aurrera zaitez, egin erreserba eta etekina atera irteera-eskaintzak ekipamenduan dituen pakete bereziaz**

CDTI diesel potentzian 150 ZP eta gasolinan 200 ZP, Sport Switch Sistema, IDSplus xasisa, haizetako panoramikoa eta AFL faro moldakorrak.

**Informa zaitez Opel sarean eta ondorengo web orrian: [www.astragtc.com.es](http://www.astragtc.com.es)**

Astra GTC gama: kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km) 130etik 223ra.

### Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:  
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)

### Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:  
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)